



## Gozoen hiriburu bihurtuko da Tolosa asteburuan

**AZOKA ▶** Herriko eta kanpoko 22 gozo saltzaile izango dira, bihar, X. Tolosa Goxua Azokan

**TOLOSA 750 ▶** Rafa Gorrotxategik urteumuga dela-eta txokolatezko logotipo erraldoia egin du ▶ 3

TOLOSA ▶

**Sorkun eta Amparanoia zezen-plazan**

Tolosaren 750. urteurrenean ▶ 4

ALEGIA ▶

**Txintzarri abesbatza, Soriara ▶ 5**

LEITZA ▶

**Anjel Alduntzin txistularia oroitzuz**

Duela 25 urte hil zen; txistulariek saioa eskainiko diote ▶ 7

AMEZKETA ▶

**Zazpi-Iturrik agur Berria Txapelketari ▶ 5**



**«Uste baino jende gehiagok» egin du bat deialdiarekin**

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶** «Uste baino jende gehiagok» egin zuen bat, atzo, ezker abertzaleak deitutako mobilizazio eta greba egunarekin. LABen arabera, «dangile gehienek bi orduko lanuztea egin zuten». Sindikatuak eguerdian Tolosan deitutako

eskualdeko manifestazioan ehunka lagun elkartu zen. Leitzan, Guardia Zibilak mobilizazioak eragotzi zituen. Leaburu-Txarama, Zizurkil, Lizartza eta Elduaingo udalek greba egin zuten atzo. Hezkuntza arloan ere izan ziren etenaldiak. N. LATABURU ▶ 2



POLITIKA ▶

# «Uste baino jende gehiagok» egin du bat mobilizazio eta greba deialdiekin

LABek deituta, ehunka lagun bildu zituen, atzo eguerdian, Tolosan eginiko eskualdeko manifestazioak eta Guardia Zibilak mobilizazioak eragotzi zituen Leitzan; «gehienek 2 orduko lanuzteak egin zituzten»



Guardia Zibilak plaza eta inguruak hartu zituen, eskopeta eta material antidisturbioak eskutan. HITZA



Villabonan giza katea egin zuten Zizurkilera. Ondoren, plazan bildu ziren. HITZA

## «Dispertsio politika behingoz amaitzeko»

Manifestazioaren aurretik, komunikatua irakurri zuten ezker abertzaleako kideek, deialdiaren nondik norakoak azalduz. «Espainiako Gobernuaren espetsxe politikak bi euskal preso politiko erail dituzte egunotan; Igor eta Roberto. Azken hau LABeko delegatua eta liberatua zen Osakidetzan eta prebentibo moduan zegoen duela ia hiru urte.

Hauek ez dira ezbeharrak izan, ez dira kasualitatezko gertakariak, ezta zerbait ekin ezina ere. Diseinatutako heriotzak izan dira, euskal presoei ezartzen zaien espetsxe politika bezalaxe: dispertsioa, isolamendua, muturreko bizi egoerak, komunikaziorako eragozpenak, osasun baldintza kaskar eta urriak... presoen eta senitartekoen kontra politikak arbitrario hori,

mendeku eta zigor politika horixe da Igor eta Robertoren heriotzak eragin dituen. Espainiako Gobernuak xantai eta presio politikorako erabiltzen duen tresna da suntsipen eta sarraski espetsxe politika hau. Izan ere, heriotza hauek testuinguru politiko oso zehatzetan gertatu dira, ezker abertzalea: negoziatio eta konponbide politikoaren aldeko apustua egiten jarraitzen duen momentuan, hain zuzen.

PNV eta Ertzaintzaren probokazioek areagotu duten egoera larri honen aurrean, ezinbestekoa da lasaitasunez baina indartsu erantzutea. Dispertsioaren amaiera hamaika bider eta hamaika moduz saiatu dugu; hala ere, bi heriotza hauen moduko gertaera latz eta gogorren aurrean eta Espainiako Gobernuaren

jokabidea ikusita, beharrezkoa da dispertsioaren aurkako eta konponbide politikoaren aldeko aurrerapausoa egitea. (...)

Aurrera egin eta konponbide prozesua blindatzea beharrezkoa da, jendartearen protagonismoan oinarrituta eta probokazio zein xantai erantzunda. Martxoaren 9an Igor eta Robertoren erailketen erantzun behar diegu, dispertsio politika behingoz amaitzeko aldarrikatu behar dugu eta, era berean, konponbide prozesuaren aldeko konpromisoa eta exijentzia kaleratu behar ditugu. Igor eta Robertoren ahal diegun omenaldirik onena Euskal Herriaren borondata errespatatuko duen konponbide politiko eta bake prozesurantz aurrera egitea izango da». ◀

NOELIA LATABURU

Ezker abertzaleak atzoko eguerdian «dispertsioaren aurka eta konponketa demokratikoaren alde» deitutako mobilizazio eta greba deialdiak «pentsatu baino jende gehiagoren jarraipena» izan zuen, LABeko ordezkari Mari Mujikaren esanetan. «Gehienek 2 orduko lanuzteak egin zituzten», sindikatuen datuen arabera. Komertzio gehienek eta hainbat enpresen euren ateak itxi zituzten, Insalusek, Leibik eta Kalparsoro papelerak, esaterako. Beste batzuk aldikako geldituen burutu zituzten. Udaletan ere izan ziren grebak, Lizartzan, Zizurkilan, Elduainen eta Leaburu-Txaraman.

Hainbat herritan burutu zituzten mobilizazioak. Tolosan, *Dispertsioa hiltzaile* lelopean, eskualdeko manifestazioa deitu zuen LABek, 12:00etarako. Ehunka lagun bildu zituen. 19:30ean, berriz, bigarren manifestazioa burutu zuten ezker abertzaleak deituta, oraingo eskualdeko herri ezberdinetan deszentralizatu, Alegian, Ikaztegiatan, Zizurkilan eta Ibarren, besteak beste. Villabonan giza katea egin zuten goiz partean, Zizurkileraino. Eta, ondoren, herriko plazara bildu ziren guztiak, konzentrazioan.

Areson eta Leitzan ere, 11:00etatik 14:00etara, geldialdia egin zuten. Eguerdiko deituta zegoen manifestazioa, baina Guardia Zibilak eragotzi egin zuen. Plaza eta inguruak hartuta zeuden, eskopeta eta material antidisturbioak eskutan zituztela. Hala, udaletxearen barnean egin zuten bilera, 150 lagun inguruk.

### Protestak egin dituztenak

Ikasle Abertzaleak ikastetxeetako datuak eman zituen jakitera. Hala, Laskorain, Orixe, Maestria eta Fleming-eko batxilergoko ikasleen %90 greba egin zuten. DBHko zenbait ikasleek, «grebarako eskubidea ez duten arren» geldialdiak burutu zituzten. Aralar, Jesusen Bihotza, Aresoko eskola, Leitzako Amazabal eta Laskorain kasu. Erleta eskolan, berriz, Etxerat-i bideratuko diote atzoko soldata.

### ERREAKZIOAK ▶

#### MARI MUJIKA

LAB

#### «Langileak zoriondu behar ditugu»

«Eskualdeko lantegi batzutan greba orokorra egin dute eta gehiengoek bi orduko etenaldiak burutu dituzte. Langile guztiek hartutako konpromisoa zoriondu behar dugu. Aspaldian izandako manifestaziorik jendetsuena izan baita».

#### RAMON IRAZU

ELA

#### «Ez dugu inongo baloraziorik egingo»

«Deialdi hau ez dugu guk deitu eta, beraz, ez dugu inongo baloraziorik egingo. Haien kaxa egin dute eta horrelakoetan jarraipenik ez izateko arriskua izaten da. Erabilitako formatu hori ez dugu egoki ikusten».

#### ANTTON IZAGIRRE

EZKER ABERTZALEA

#### «Ez gara erori probokazioetan»

«Positiboki baloratzen dugu grebak izan duen erantzuna, zentzuzkoa izan da. Ezker Abertzalea ez da Eusko Jaurlaritzak konfrontaziorako eginiko probokazioetan erori. Mobilizazio hauek inbertsioak dira etorkizunerako. Gure apustuak aurrera darrai».

#### ONINTZA LASA

EA

#### «Ekimen bateratuak lortu behar ditugu»

«Eguneko kontestu politikoan saiatu behar dugu bateratzen gaituzten ekimenak aurrera eramaten, esparru gehiago biltzeko aukera badagoela demostratu delako; baina unilateralki burutu dute; beti ere, aintzat hartuz guztiok dugula greba eskubidea».

TOLOSA GOXUA AZOKA ▶

# Tolosa, gozoen hiriburu

## X. Tolosa Goxua Azoka izango da bihar; gaur, bonboiei buruzko hitzaldia

### ESTI EZEIZA

Gozo giroa zabaltzen hasia da dagoeneko Tolosako kaleetan. Bihar egingo baita urteroko legez Tolosa Goxua Azoka. Aurtengoa hamargarrena izango da, eta edizio honetarako ere hainbat ekitaldi antolatatu ditu Tolosako Udalak. Horien artean, hauek dira astean zehar eta larunbatean egingo diren ekintzak: hasteko, prentsaurrean aurkeztu zituzten herenegun guztiak, Donostian, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Josemi Gomez Elozegi Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu zinegotziak eta eskualdeko gozogileak.

Gaur, berriz, iluntzeko zortzietan, Gure-Kaiola elkartearen, Koldo Salinas (Bombones Irunen) gozogileak hitzaldi bat eskainiko du. Saio honetan, bonboia eskuz nola txokolatatzu behar den azalduko du. Trufa eta bonboiekin egingo du erakustaldia eta, amaitzeko, *krispis*-ekin bonboiak egingo ditu. Hitzaldi honetan, jendeak eskuak txokolatatzeko zikindu ahal izango ditu, galderak egin, ideiak eman...

Bestetik, Azoka Berezia izango da bihar, larunbata, San Frantzisko ibilbidean. Azokako postuetan 22 gozo saltzailek hartuko dute parte. Horien ar-

tetik, bost eskualdekoak dira: Ezeiza, Gorosti, Gorrotxategi, Gozona-Ibañez eta Saizar. Bombones Irunen gozotegiak, bestalde, Tolosako Bonboia prestatu du espreski egun horretarako.

Herritarrek ere parte hartu ahal izango dute gozo azoka erakargarri honetan. Horretarako, Sagar Tarta lehiaketan izen eman dezakete. Bertan, 150 euroko saria eta opari berezi bat eskuratu ahal izango du irabazleak.

Tradizio handia du Tolosak. azokak antolatzeke garaian, horren adierazgarri da larunbatero Zerkausan egiten den bertako produktuen merkatua. Hala ere, azken hilabeteetan, berritze lanak direla eta, Triangeluan egiten da azoka hau.

### Tolosaren 750. urteurrena

Aurten, hiriaren jaiotzaren 750. urteurrena ospatzen du Tolosak. Horregatik, Rafa Gorrotxategi gozogile ospetsuak 750. urteurren honetako logotipoaren irudi bat eraikiko du txokolatatzeko. Irudi honek bi metroko altuera izango du, eta bihar San Frantziskoko pasealekura hurbiltzen den orok izango du txokolatatzeko gozo erraldoi hau dastatzeko aukera.



lazko Tolosa Goxua azoka. NOELIA LATABURU

### LEHIAKETA ▶ SAGAR TARTA

**Izen-ematea.** Lehiaketan parte hartzeko, 943 69 74 54 telefonora deitu behar da. Gaur da azken eguna.

**Non aurkeztu.** San Frantzisko ibilbidean aurkeztu behar dira tartak, bihar.

#### Ordutegia.

▶ Izena emateko: gaur arte, 09:00etatik 13:00etara, telefonoz.

▶ Tartak aurkezteko: bihar, 10:00etatik 11:00etara.

▶ Sari banaketa: bihar,

eguerdiko hamabietan banatuko dituzte sariak.

**Sariak.** San Frantzisko ibilbidean banatuko dituzte.

▶ 1. saria: 150 euro eta oparia.

▶ 2. saria: 120 euro eta oparia.

**Epaimahaia.** Eva Argiñano (Argiñano Jatetxea), Elena Arzak (Arzak Jatetxea), Lurdes Recondo (FRecondo Jatetxea), Jose Mari Gorrotxategi (Gorrotxategi gozotegia).

### GUTUN@K ▶

## Agur hunkigarria Tolosako Ikastolan

Bihar, hilak 11, Laskorain ikastolak ondo merezitako agur bat eskainiko die hainbeste urtetan bertan lan egin duten Begoña Arrate, Mari-sol Oreja, Juani Agirrezabal, Jaxinto Elola eta Joxepi Iturrioz.

Niri ere ezinbestekoa egiten zait urteetan zehar lankide eta laguntzaile zintzo eta leial izan ditudan adiskide hauekiko nire esker ona publikoki azaltzea. Beste asko eta asko bezala, ikastolaren proiektua aurrera ateratzeko beren barruan zuten guztia eman dute eta ez dute aitxakiarik izan debora eta ahalegina eskaintzeko garaian.

Guztiekiko esker ona maila berean badago ere, ez nuke geratu nahi Begoña Arrateri zor dioguna azpimarratu gabe. Lehenik eta behin bere Magisteritzako titulazioa eta Funtzionaritzarako lortu zituen Oposizioek eskaintzen zioten bide zabala eta erosoan utzi, gero Sto. Tomas Lizeoak eskaintzen zion babes gozari uko egin eta azkenean Tolosan eskaintzen zitaizoen bide malkartsuari baietz esan zion. Beste batzuen laguntzarekin, bera izan eta ikastola ireki zuena eta une haietan erantzukizun nagusia hartu zuena.

Ez zen, ez, erraza izan aukeratu zenuen bidea: sasilegalizazio bat, erdiklandestinitatea, salbuespen legea, atxilotaketak... Baina, lankideen laguntzarekin eta ikastola sustatzen zuten gurasoen sostenguearekin, guztiari aurre egiteko gai izan zinen ikastolaren trena errail sendoago batzutan kokatu zenuen arte. Zure eskutik jaio zen haur txiki hura heldutasunera iritsi da eta emaitza ederrak eman ditu. Eskerrik asko guztiagatik.

Eta nire esker ona, omen-dutako beste lankideei zabaldu nahi dizuet, ikastolaren historian aparteko ekarpena izan duzuelako. Esker mila.

EMETERIO ZALDIVIA ▶  
TOLOSA

**I. hitza** marrazki lehiaketara aurkeztu  
zinetenon marrazkiak Tolosako HITZAREN egoitzan daude, Araba etorbideko 5.aren atzealdean. Jaso nahi dituzuenok pasatu zaitezke bertatik 09:00etatik 14:00etara.

TOLOSA ▶ MUSIKA

# Emakumeen sormena

Sorkunek eta Amparanoiak ekingo diete Tolosaren 750. urteurreneko kontzertu ekitaldiei biharko emanaldiarekin

## ERREDAKZIOA

Aurten Tolosaren 750. urteurrena ospatuko dute, eta ekitaldien baitan, Tolosa 750. Fundazioak kontzertuak antolatu ditu. Lehenengoa bihar izango da, Sorkunen eta Amparanoiaren kontzertuarekin. Zezenplazan egingo da, 22:00etan hasita. Sarreraren prezioa 12 eurokoa izango da aldeaz aurretik erosita (Servikutxan, Kutxanetan eta Telekutxan), eta 15 eurokoa leihatilaren erosita.

Urteurreneko lehenengo kontzertua izateaz gain, beste berezitasun batzuk baditu ekitaldiak. Udaleko Gazteria Sailak eta berdintasun teknikariak parte hartu dute kontzertuaren ezaugarriak zehazterakoan eta aste honetan egin den Emakumearen Nazioarteko Egunarekin du lotura.

Amparanoiaren kasuan, Madrilan eta Bartzelonan eginiko disko berriaren aurkezpenaren ondoren, Euskal Herrian egin-

go duen lehenengo emanaldia Tolosan eskainiko du. Bestalde, «Sorkunek eta Amparanoiak elkar ongi ezagutzen dute, eta elkarrekin aritzean programa ezin hobea osa dezakete», diote kontzertuaren antolatzaileek.

## Bat-batekotasuna

Amparo Sanchez andaluziarrenaren musika proiektua da Amparanoia. Ideia hau 1996. urtean sortu zen Madrilgo Lavapiés auzoan, Bartzelonan sendotu eta garatu zen, eta duela bost urtetik hona munduan zehar dabil.

*La vida te da* Amparanoiaren bosgarren lana da, joan den urtarilaren 30ean argitaratutakoa eta denak aldi berean josten grabatutakoa. Diskoak runba batekin hasi eta reggae, son, bolero eta ska-rekin jarraitzen du. Bederatzi gai berri aurki daitezke bertan, eta lau gehiago kolaborazioekin, guz-



Sorkunen —ezkerrean— eta Amparanoia, bihar izango dira Tolosan. LANDER GARRO/OARSALDEKO HITZA - HITZA

tiak modu berean grabatuak. Inspirazioa eta bat-batekotasuna agerian uzten dituzte Dhira, Dani, Monoloco, Calima, Mimi, Maura, Kaki Arkarazo, Joan Garriga eta abarren laguntzarekin.

## Soinu minimalista

90.eko hamarraldi erdialdean, Sorkun gazte oreretarra Kashbad taldean sartzea proposatu

zioten. Talde hark, jada, bazuen ibilbidea egin, baina emakume-ahots batekin probatu nahi zuen. Handik gutxira lehenengo maketa grabatu zuten, eta orduan Fermin Muguruzak *Hitz Egin* musika jaialdian jotzera gonbidatu zituen. Zazpi urtez gogor lanean jardun ondoren, Kashbad taldeak gelditzea erabaki zuen bide berriei ekiteko.

1999. urtean, Muguruzak

*Brigadistak* diskoa kaleratu zuenean, Sorkun talde hartan jotzen hasi zen eta bi urte beranduago, 2002an, Sorkunek *Onna* deituriko bakarkako diskoa kaleratu zuen.

Iaz disko berria kaleratu zuen, *Duna* izenekoa. Bertan, distortsioak alde batera utzi eta soinu minimalistak eta ondo landutako doinuak erabiltzen ditu artista oreretarra.

## ANOETA ▶

### Herriko festak antolatzeko bilera asteartean

Anoetako Udalak ohar batean azaldu duenez, laster hasiko dira herriko festen inguruko lehen prestakuntzekin. «Herritar guztiak animatzen zaituztegu parte hartzera egingo diren bileretan, festak denon gustukoak izan daitezkeen», azaldu dute. Lehenengo bilera datorren astean egingo dute, hilaren 14an, asteartean, hain zuzen. Hitzordua, 19:00etan, udaletxean.

## VILLABONA ▶

### Areto Torneoko bigarren fasea hasiko da bihar

Olaederra kiroldegiko VIII. Areto Torneoko bigarren faseari ekingo diote bihartik aurrera. 14:00etan hasiko dira partidak eta guztira lau norgehiagoka jokatu dira. Bigarren fasea amaitzerakoan finalerdiak jokatu dira (maiatzaren 13an eta 20an) eta, azkenik, maiatzaren 27an, hirugarren eta laugarren posturako partida eta finala jokatu dira.

## VILLABONA ▶

### Argazki bilketa Jesusen Bihotzako 40. urteurrenerako

Aurten Jesusen Bihotza Ikastolak bere 40. urteurrena beteiko du. Argazki erakusketa egingo dute, eta horretarako dira hasiak ikasle ohiei, gurasoei edo Villabona eta Zizurkilgo herritarrei bildutako argazkiak, grabaketak, eta abar eskatzen dizkiete. Bilketak: Zentroko Idazkaritzan hilaren 6tik 17ra (15:00etatik 17:00etara) edo billabona@ikastola.net helbidean.

## VILLABONA ▶

### Itaka eta Mix6t taldeen kontzertua Gaztetxean

MusikHerria kontzertu biraren baitan, biher bi talderen kontzertua izango dira Villabonako Gaztetxean. 21:30ean hasiko dira emanaldiak, eta Itaka eta Mix6t taldeen musika entzun ahal izango da. Hendaia taldea da Mix6t taldea eta hip-hop, funky eta reggae musika egingo dute. Itaka ez da berria Gaztetxean, aurretik kontzertu bat eskaini baitu.

## ANOETA ▶

### Batzarra antolatu du biharko Ezker Abertzaleak

## ERREDAKZIOA

Anoetako Ezker Abertzaleak batzarra antolatu du biharko, 10:30ean, Anoetako udaletxean, *Anoeta ezkerretik eraikiz* izenburupean. Batzarraren jorratuko diren gaiak honakoak izango dira: batzordeen berrantolaketa; 2003-2007 Herri proposamenaren balorazioa eta aurrera begirako lan ildoak.

Antolatzaileek azaldu dutenez, Bide Eginez prozesuaren baitan, «puntu garrantzitsu bezala kokatuak zeuden beste hainbat arloan, batetik barne antolaketa eta bestetik herrigintza». Bultzatzaileek dioenez, «Anoetako ezkerriari eta abertzale guztiei deia luzatzen diegu, parte har dezaten gurekin, Anoeta ezkerretik eraikitzen».

**Aintzat hartu**

Begiraiozu Bai Euskarari Ziurtaginiari

**www.baieuskarari.org**  
902 43 00 26

leguntzako hitza

Elena Irujoa, ikazkera

ERRETEGIA  
**ARRATZAIN**  
TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekita  
arratzain@telefonica.net  
Arratzain Zahar Baserria • Tel.: 943 36 66 63  
20170 USURBIL

ALEGIA ▶ MUSIKA

# Txintxarri abesbatzakoak Soriara

Almazan herriko Abesbatza Topaketan parte hartuko dute kantari alegitarrek



Txintxarri abesbatza, Eguberrietan emandako saio batean. HITZA

NEREA URBIZU

Soriara (Espainia) egingo duen bidaiari azken prestaketak egingen ari da Alegiako Txintxarri abesbatza. Gaurtik 12ra bitartean, Gaztela eta Leongo lurralde bisitatzen izango dira alegitarrek. Almazan hirian izango den seigarren Abesbatza Topaketan parte hartuko dute.

Alegiako Txintxarri Abesbatzak Soriako Coral Polifonica de Almazanekin duen harremanetik sortu da kontzertu hau emateko aukera. Duela bi urte jarri ziren harremanetan bi urte daramatza *Encuentro Coral Villa de Almazan* abesbatzen topaketa hori antolatzen. Aurten, Alegiako Txintxarri abesbatzak parte hartuko du Euskal Herriko eta Orenseko Orfeon do Carballiño abesbatzak Galiziatik.

Abesbatzen 6. topaketa

Orain arte topaketa hau udazken edo negu aldera egin izan badute ere, aurten hilaren 11n egingo dute Almazango Pedro Deunaren parrokiari; 20:00etatik aurrera ordu eta erdiko kontzertua eskainiko dute hiru abesbatzek. Almazango abesbatzak parte hartuko badu ere, txintxarriak eta orensearrak izango dira protagonistak.

Orenseko Orfeon do Carballiño abesbatzak kantatuko du lehenengo, eta eskainiko dituen kantuetatik bost galegoz izango dira.

Programazioa

Txintxarri abesbatzaren txanda etorriko da gero; hala, zortzi abestiz osatutako egitaraua prestatu dute txintxarriek kontzertu horretarako, gehienak euskal doinu herrikoiak: Sorozabalen *Maita*, Bustok harmonizatutako *Axuri beltza* eta *Porrusalda*. Jose Ignazio Ansorenak konpondutako *Agurra*, edota *Herribera* kantatuko dituzte, besteak beste. Horiez gain, Machadoren letra daraman *Cantares* ere abestuko dute.

Almazango abesbatzak kantatu batzuk eskaini ondoren, eta kontzertuari amaiera emateko, hiru abesbatzek elkarrekin jardungo dute: Joxe Mendiage alduarraren letra daraman *Kantuz* euskaraz, *O voso galo comadre* galegoz eta *Viva la montaña* espainolez.

Asteburu honen ostean Almazango abesbatza Alegiara etorriko da, baina oraindik data zehaztu gabe dago.

Bide batez, Txintxarri abesbatzak Soriako lurralde bisitatuko ditu Gaztela eta Leongo txo-koetan barna.

BALIARRAIN ▶

## Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuz

Gaur, Emakumearen Nazioarteko Egunarekin loturik, afaria antolatu dute Baliarrainen. Emakumeei zuzenduta dago, eta Zartagi jatetxean egingen dute. Hara bertaratu behar da han afaldu nahi izanez gero. 21:00etan hasiko dira.

ALTZO ▶

## Harremanen gaineko hitzaldia

Datorren asteazkenean, hilaren 15ean, *Heziketa ereduak familia* izenburupean, Izadi gizarte gaiak ikertzeko gabinetearen eskutik, nerabe eta gurasoen erlazioen arteko gaiaren inguruan jardungo dute. Ertotzeko gelan izango da, 17:00etan.

ALEGIA ▶

## Jose Luis Albizuren koadro bereziak

Alegiako Jubilatuen tabernan Jose Luis Albizuren koadro bereziak daude ikusgai, hilaren 21a arte. Paisaiak lantzen ditu, eta erliebean daude landuak, begi bistarako efektu berezia sortuz.

IKAZTEGIETA ▶

## Tolosaldea Garatzenekin hitzartutakoa

Ikaztegieta Udalak Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin hitzarmena sinatu du herri onuran lanak burutzeko. Agentziak enplegua sustatzeko programa antolatzen du; aurretik igeltserritzako espezialitatea. Udaletxeko eraikuntza bertan igeltserritzako lanak bazituenez, talde honi eskaintzea erabaki zuen. Bestalde, eraikuntzaren beheto aldean Ostatau taberna dago: honi denda erabilera ere eman nahi zaio. Horretarako, montaketarako metro gehiago behar zirenez, Udalak Kaietako Etxea erosi du, taberna eta eraikuntzaren artean lotura egiteko.

AMEZKETA ▶ PILOTA

## Zazpi-Iturrik agur esan dio Berria Txapelketari

Bi tantorengatik txapelketatik kanpo geratu dira, Intxaurren taldeak aurrera eginez



Ropon-Legarreta bikotea Euskadiko Txapelketako partidari. N. URBIZU

N. URBIZU

Zazpi-Iturrik ez du hirugarren fasea jokatzeko aukerarik izango: Elorriko Intxaurren taldearen kontra jokatuak Berria Txapelketako hiru partidatetik 2 galdu egin zituzten, orotara 45 tanto eginez.

Iraola-Azelus kadeteek 13 tanto egin zituzten. Arzelusek min hartu zuen eskuan eta Arabako Openaren Finala ere ezin izan zuen jokatu.

Ropon-Legarretak 10 tanto lortu zituzten, partida nahiko eskasa egin ostean: irabazten hasi baziren ere, ezin izan zu-

ten berdin amaitu. Ez zuten horrelako porrota espero.

Baezek eta Garmendiak garaipen argia lortu zuten, 22-3 geratuz, baina ez zuen balio izan: «Bi tantorengatik txapelketatik kanpo geratu da Zazpi-Iturri. Zorte txarra izan dugu», Xalton Zabala delegatuak zioen bezala.

Bestalde, Ropon eta Legarreta bikotea Intxaurren taldearen aurka jokatuak galdu egin zuten, baina Euskadiko Ligako finalean dira, bueltako partidari aise irabazi ostean. Igor Baez ere eskuz banakakoan finalean dago.



**KM**  
kulturunea

Koldo Mitxelena Kulturunea  
Lindaria kalea 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 31 28 93  
programazioa@gipsukoa.net  
www.gipsukoa.net/kultura

## ERAKUSKETAK

### Erakustaretoan

Urtarrilak 31 - Martxoak 25

*Artea, gertatzen den gauza.  
Jardun kontzeptuaren  
jatorria Espainian  
(1965-1980)*

---

## Ganbaran

Ostailak 8 - Apirilak 1

*Arkitektura eta eskultura  
Arantzazuko Basilikan*



ORDUTEGIA  
asteartetik larunbatera:  
10:30-14:00 / 16:00-20:30  
asteburua, igande eta jaiegunetan itzala

IBARRA ▶ GIZARTEA

# Sendi Ekintza elkartearen historia ari dira biltzen

40 urte baino gehiago dituzten lehen dokumentuetatik gaur egunerarteko guztia bildu nahi dute elkarteko ordezkariak



Pasa den ostiralean bildu ziren Sendi Ekintzako sortzaileak eta lehendakari guztiak. HITZA

MARIBI ZUBELZU ▶ SENDI EKINTZAKO SORTZAILEETARIKO BAT

## «Bizia eman dio elkarteak herriari»

Maribi Zubelzu Sendi Ekintza elkarteko sortzaileetako bat izan da, eta gustura hartu du bere historia biltzeko ardura. **Ez da lan erraza izango zure gain hartu duzuna?**

Jubilatuta nago, eta horrelako lan bat egitea oso polita izan da niretzat. Batetik, dokumentu idatziak biltzen aritu naiz batean eta bestean. Aktak direla edota garaiko apaizaren idatziak direla hainbat datu bildu eta euskaratu ahal izan ditut. Bestetik, pasa den ostiraleko

hitzordua prestatzen egon naiz, banan banan lehendakariarekin eta sortzaileekin aritu egiten. Beraiekin solasean ari-tuta ere hainbat datu bildu ahal izan ditut.

**Noiz eta nola sortu zen?**

1965. urte inguruan ditugu lehen aztarnak. Haurrei eskola emateko helburuz sortu zen elkarte herriaren zegoen beharri aurre egiteko.

**Aldaketa asko jasan ditu.**

**Emakumeena izan daiteke horietako bat.**

Emakumeen kasuan, alarguna izatean soilik zegoen sartzeko aukera, baina 1977. urtetik aurrera bazkide diren emakumeak beren kabuz sar daitezke.

**Zer azpimarratuko zenuke Sendi Ekintza elkarteaz?**

Herriarengatik asko egin duen elkarte izan da, da eta izango da, bizia eman dio bere sorreratik. Gainera, gero eta jende gehiagok hartzen du parte eta azkenaldian gaizteen presentzia nabaria da. Hobera doa, beraz. ◀

IÑIGO TERRADILLOS

«Ibarrarentzat hainbeste egin duen elkarte delarik ikusi, eta 40 urte baino gehiagoko historia duela aintzat hartuta», Sendi Ekintzaren historia biltzea garrantzitsua dela ikusi dute. Eli Nosellas egungo lehendakaria izan zen horren beharra ikusi zuena; izan ere, «ez dago ezer bilduta, eta herri honentzat oso garrantzitsua izango da, gainera, dokumentazio guztia bilduta uzteak mesede handia egingo du».

Hala, sortzaileetako den Maribi Zubelzuk hartu zuen bere gain Sendi Ekintza elkarteari buruz dagoen dokumentazioa bildu eta euskarara itzultzeko ardura. Ibartarrak aurkitu dituen lehendabiziko aztarnak 1965. urtekoak dira. Urte horretan elkarte bezala legalki ezarri gabe zegoen oraindik, eta Francoren garaia zirela kontuan hartuta ez-kutuan ibiltzen ziren. *Cabezas de familia* izena jarri zioten elkarteari, eta urte askoan iraun zuen horrela. 1977. urtean estatutuak aldatu ziren asanblea bidez, eta *Asociación familiar* izena jarri zioten. Urteek aurrera egin ahala, hainbat aldaketa jasan ditu elkarteak; baina, era berean, «herriari bizitasuna ematen jarraitzen du ekintza desberdinak antolatzen».

Aurpegi guztiak bildu

Historia osatzearekin batera, arpegi guztiak bildu nahi izan dituzte pasadizoak elkar trukatu eta argazkiak atera asmoz, eta horretarako elkarteko sortzaileak eta lehendakari guztiak —alargunak zenduen kasuan— bildu ziren pasa den ostiralean elkartearen bertan. Garaian garaiko lana eskertu zieten, «orain egiten ari garen lana zuek sortu eta egindako fruitutik izan baita». Eta bereziki Maribi Zubelzu egunotan egiten ari den lana eskertu nahi izan zuten.

Elkartearen historian parte hartu duen jende gehien bildu asmoz, apirilaren 9rako egin dute hurrengo hitzordua.

IBARRA ▶

## Maulen egingo dute bihar 'Sua' filmerako grabaketa

I. TERRADILLOS

Eneko Aritzaren Lagunak Filmagintza eta Kultur elkartearen *Sua* film luzearen grabaketak aurrera darrai, eta bihar Maulen filmatzeko asmoa dute ibartarrek. Hain zuzen ere, matxinada bat grabatuko dute bertan. Hori dela eta, jendea animatu nahi dute Maulera joan eta filmean parte hartzea.

Egunean zehar grabaketa egingo dute, eta behin lanak bukatuta, bertan jai giroan bertsoez, trikitixaz, albokaz eta kontzertuez gozatu eta bertan lo egiteko aukera izango da. Autobusak 09:00etan irtengo dira Ibarroko Kultur Etxetik, eta 09:30ean Hernaniko autobus geltokitik. Autoz joan nahi dutenentzat 12:00etan egin dute hitzordua, Mauleko aparkalekuan.

TELEFONOAK ▶

Arrialdiak. ((112))  
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212  
▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39  
▶ Asteasu. Medikua: 692423  
▶ Baliarrain. Medikua: 889003  
▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134  
▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329  
▶ Irura. Osasun zentroa: 690720  
▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800  
▶ Orendain. Medikua: 655595  
▶ Orea. Medikua: 682228

▶ Tolosa.  
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 006970  
▶ Gernikako arbola: 006900  
▶ Amaroako dispen.: 672637  
▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536  
▶ Gurutze Gorria: 674888  
▶ Villabona. Anbulat.: 006970  
▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garrarioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02  
▶ Donostiako autobusa: 361740  
▶ Tolosaldea bus: 650621  
▶ Leitzaran autob.: 948 221015  
▶ Taxia: 670420  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820  
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885  
▶ Tolargi: 650016  
▶ Iurrumendi egoitza: 670325  
▶ Tolosa gasa: 675320

hilerria ▶

### Natividad Mendizabal Erasquin

(Juanito Mendizabal Irastozaren alarguna)

Atzo hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Hainbeste maite genuen amona

joan zaigu ondotik

baina zure erakutsiak eta irrifarra

bihotzean izango ditugu beti.

Zure bilobak: Beñat, Manex, Oihana eta Garazi

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzete! GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SANTA FE parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Heldidea ▶ Iturritza ebea

ZALDIBIA, 2006ko martxoaren 10a



iragarki laburrak ▶

SALGAI

**Etxebizitza.** Tolosan, etxebizitza

salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.

Igogailuarekin. Deitu 652 72 14 95 telefono zenbakira..

**Furgoneta.** Citroen Berlingo.

2003koa. 30.000 Kilometro. Oso egoera onean. Deitu 635 73 63 75 telefono zenbakira.

**Kopistegia.** Alokairuan edo salgai, Ibarren kopistegia-inprimaketa

digitala. Laguntza izango duzu.

615 73 61 85.

**Autoa.** Seat Toledo. Diesela, 110 zaldi. 2002koa. 10.900 euro. Interesatuak deitu 628 54 91 45 telefono zenbakira.

LANA

**Tabernaria.** Anoetan, neska eskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. 635 74 52 91.

LEITZA ▶ KULTURA

# Txistularien txokoa, Anjel Alduntzin izanen dute gogoan igandean

Duela 25 urte zendu zelarik, herriko txistulariek bere oroimenean emanaldia egingen dute Karrapean

JAIONE ASTIBIA

Txistu emanaldi berezia egingen dute igande honetan herriko txistulariek. Anjel Alduntzin zendu zela 25 urte bete berri dira otsailaren 17an eta haren txistugintza gogora ekarriko dute, Karrapen, txistularien betiko txokoa eskainiko duten kontzertuarekin: «Txistua joz gogorarazi nahi dugu, eta berak egiten zuen moduan, kaleko ukitu horrekin». Eguerdiko hamabietan, 15-16 txistularik eta atabalerok txandaka-txandaka, 25 bat doinu desberdin joko dituzte.

Anjel ziztularia, horrela zen ezagun bera, gogora ekartzeko ekitaldia egin nahi dute horrela, harekin batera txistu jotzen aritutako kideek eta geroztik ere ariketa horretan ari diren, aritu izan diren eta gaur egun musika eskolan ikasten ari diren herriko txistulariek. «50 urte egin zituen hark txistu jotzen. Inguru hauetako herrietan eta igande arratsaldetan, hemen, Karrapen», azaldu dute. Gaur egun ere igande eta jai arratsaldetako saioekin jarraitzen dute Leitza, Euskal Herrian usadio horri eutsi dioten herri urrienetakoa izanik.

Horretan aritzen direnak Alduntzini ikasia dute txistua jotzen eta baita jotzeko era ere: «Hark belarriz jotzen zuen eta dantzarako. Txisturako piezak eta trikitixa piezak ere entzunez ikasi eta aire berarekin jotzen zituen gero: bizi eta arinarin, bere airera. Bere estiloa zuen». Iganderako prestatu duten errepertorioa ere taitu



Herriko txistulari batzuk pasa den kabalkadan. JAIONE ASTIBIA

berekoa da. 25 doinu desberdin joko dituzte, guztiak Alduntzinek jotzen zituenetik aukuratutakoak. Zazpi txistulari, tartean silbotea, eta 3 atabalerok ariko dira erakustaldian; eta gero, Aralar musika eskolako 6-7 ikasleek ere parte hartuko dute.

Emanaldiarekin batera, Karrapera biltzen diren entzuleentzat, hamaiketako aterako

dute. Eta «entzuleak gustura dauden bitartean, gu txistua jotzen ariko gara», baieztatu dute.

Ordurako, goizean diana joz ibiliko dira herrian barrena, 08:30ak aldean. Eta 11:00etako mezara ere, pieza pare bat jotzera joatekoak dira txistulariak, plazatik Alkate-soinua joz aterako direla eta San Juan Martxa-rekin jaitsiz, itzuleran.

LEITZA ▶ ZINEMA

## Lorezain baten istoriotik farmazeutikien boterera

'El jardinero fiel' filma proiektatuko dute; aurtengo zine-denboraldiko azken saioak

J. ASTIBIA

Industria farmazeutikoez dute boterea, eskandalo korporatiboak, delituzko ekintzak, manipulazioa... Egun-eguneko gaia da sendagaien patenteen jabetza dutenen eta sendagai generikoen aldeko apostua egiten dutenen arteko lehia eta borroka; janaria bezala, sendagaiak ere behar, batez ere garapen bidean diren herrialdeetan, eta sendagaien «izenaren jabe» direla argudiatuz, beharrez daudenak hutsik.

Horixe da, denboraldiko zine-emanaldiei bukaera emateko gainera, asteburu honetan Leitzako zinema aretoan proiektatuko duten *El jardinero fiel* filmak kontaktuko duen istorioa. Ohi bezala, gaur gauean 22:30ean eta etzi 19:30ean dira saioak.

Fernando Meirellesek zuzendu zuen pelikula hau. Erresuma Batuetan egindako lana izanik ere, bera brasildarra da eta horrelako gaiekin sentibilizatutakoa; Le Carreren eleberria irakurritakoan istorioa pantailara eramatea otu zitzaion, eta are egoera gordinagoan dauden zonaldean girotea: Kenian, Afrikan.



Filmaren iragarpen kartela. HITZA

## FITXA ▶

**Izenburua.** «El jardinero fiel».

**Zuzendaria.** Fernando Meirelles.

**Urtea.** 2005.

**Herrialdea.** Erresuma Batua.

**Iraupena.** 129 minutu.

**Generoa.** Drama, thriller-a.

Justin lorezaina eta Tessa bere emaztea, bertako aktibista sutsua dira protagonista. Emaztea erahil egiten dute eta berarekin zihoan medikuak ihes egiten duen pasio-hilaketa delakoan daude guztiak, Britania Handiko Goi Komisionatuko kideak, alegia, baina ez senarra: farmazeutikien industriaren inguruan sekulako eskandalo bat argitzeaz zen nonbait bere emaztea, hilgarri bezain ohiko den zer bait.

## hilberria ▶

Juan Jose Manotas Romero



Beti arte, beti gurekin

ekt -ko langileen izenean

ZARAUTZ, 2006ko marxoaren 10a

## hilberria ▶

Juan Jose Manotas Romero



Gure artean izango zara beti

ETXERAINO

ZARAUTZ, 2006ko marxoaren 10a

## hilberria ▶

Pako Beristain Lasa



Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko

Zure ilobak: Aitor eta Gurutze, Xabier eta Nieves, Josu, Iker eta Ainhoa, Eneko eta Olatz, Irati, Larraitx, Ainhoa eta Javi, Eneritz eta Josu, Oskar eta Nagore, Jon.

AZPEITIA, 2006ko marxoaren 10a

## hilberria ▶

Juan Jose Manotas Romero



Hire gurdia hartu eta hitza banatzen jarraituko diagu. Adiorik ez.

Urola Kostako HITZako langileak

ZARAUTZ, 2006ko marxoaren 10a

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztiaren prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Eresoinka abesbatzan aritutako kantariantzako bazkaria antolatuta dute etzi, igandea. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84 edo 677 43 89 49 telefono zenbakietan. 37 euro sartu behar dira Kubako 2101 0117 12 0125329102 kontu korrontean.

**Tolosa.** Erretiro eta otoitzaldia, euskaraz. 16:00etatik, 17:30era, Santa Maria parrokian.

**Tolosa.** Nikaraguaren aldeko Merkatu Txikia, Kultur Etxean. Amaro zko auzo elkarteak antolatuta.

**HITZALDIAK**

**Irura.** Emakumeon egoera errefuxiatuen kanpamenduan. 18:00etan, ikastolan.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**

**Ikaztegieta.** Hindu: un sueño de libertad. 20:00etan, liburutegian.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren 52, 112.  
**Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

**IRRATIA**

**Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZAren erreparoa, albisteak, elkarrizketak, disko eskainiak...  
 21:00-22:00. Zaharrak berri, Hala Bedi irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
 22:00-23:00. Arkako show.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# 'Jokatuko yew/ñeu?'

**TOLOSALDEA ▶** Iritsi da Kilometrotarra eskualdera, Kilometroak 2006ko antolatzaileek eta Lur-lan baserritar elkarteak martxan jarritako ekimena

**ERREDAKZIOA**

Iritsi da Kilometrotarra Tolosaldera. 2006ko Kilometroetak otarra da, eta dagoeneko eskualdeko hainbat tabernatan eta lantokietan aurki daiteke.

Oiartzunen izango da aurten Kilometroak festa, Haurtzaro Ikastolak antolatuta, *Ingo yeu/ingo ñeu!* lelopean. Hangoak buru-belarri sartuta daude aspaldi prestaketatan, eta Kilometroarako girozko antolatutako beste hainbat ekitaldiren artean, aurten ere ekimen hauxe jarri dute martxan antolatzaileek. Horretarako, Lur-lan baserritar elkartearekin lankidetzan ariko dira.

«Lur-lan ekoizle txikien elkartea da. Baserritarren eta abeltzainen eskuetatik otarra zuzenean joaten dira produktuak, onak eta naturalak. Ekoizle txikien lanaren emaitza dira: lurrak eta animaliek emandako alerik onenak, saski batean bilduta», adierazi dute antolatzaileek. Kilometrotarra «goi mailako kalitatezko pro-



«Lurrak eta animaliek emandako alerik onenak» bildu ditu Lur-lan-ek saskian. HITZA

duktuez» osatutako saskia da: urdaiazpikoa, gazta, ardoa, piperrak...

Produktu hauek guztiak das-tatu nahi dituenak, beraz, aski du Kilometrotarran jolastea. Nola parte hartu? «Modua oso

sinplea da: bi euroren truke zerbaki bat hautatu, eta zozketan iriteten den zenbakiarekin bat egiten badu, otarra saski-ran».

Tabernetan eta lantokietan izango da jokatzeo aukera.

Banakakoez har dezakete parte Kilometrotarran, edo koadri-lek elkarrekin zerrendak erosi. «Saski hau aitzakiarik txarrena ez da elkartu eta afari gozo bat egiteko».

*Jokatuko yew/ñeu?*

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK, PELLO**

Nahiz eta urrun egon egunero gogoratzen gara zurekin. Zorionak bihotz-bihotzez. Maite zaizugu.



**URTE ASKOAN**

Haritz Arana Garmendia (Tolosa). Zorionak familia guztien eta bereziki llerren partetik zure hirugarren urtebeletzean.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

www.elkar.com

Nahi duzunaz solastuko gara.

Gura duzunaz egingo dogu berba.

Nahi duzunaz hitz egingo degu.

Nahi duzunaz mintzatuko gira.

Euskal Herriko txoko guztietara iristen da **elkar megadenda**. 14 denda eta 150.000 erreferentzia baino gehiagorekin, eskaintza zabalena aurkituko duzu libururik, musikarik, edo jolasarik. **Kultura** guzti-guztiaz zure esku.

**elkar** elkar ezagutzen dugulako

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA